

BAZENEKIEN kontagailu berriarekin...

...**Benetako kontsumoa, erreal**a, ezagutzeko eta hainbat kudeaketa egiteko aukera dagoela web plataformaren bidez. Horrez gain, energia kontsumoaren datu historikoak ere ezagutu daitezke.

...**Jada ez daudela faktura estimaturik**, faktura guztiek datu errealak dituzte.


...**Errazagoa dela kontraturiko potentzia aldatzea** edota **ordu bereizketadun tarifa** berehala kontratatzea, langilea etxera etortzea ez baita beharrezkoa.

...Konpainiek **familien jokaera pribatuen datuak** lortzen dituztela, noiz gauden etxean edo ez, noiz goazen ohera edota noiz prestatzen dugun janaria, etab.

BAZENEKIEN bi tarifa mota daudela:

1-2.0A tarifa: Energiaren prezioa finkoa da egun osoan zehar.

2-2.0 DHA tarifa: Honi ere “Ordu bereizketadun tarifa” deitzen zaio. Tarifa honekin energiaren prezioa gauean eta goizean 2.0A tarifarekin baino merkeagoa da, arratsaldean berriz, garestiagoa.



KONTRATU MOTA: PVPC ordu bereizketarik gabea


KONTAGAILU MOTA: Urrutiko gestio-sisteman benetan integratutako kontagailu adimendunarekin

Fakturazio epeko batezbesteko perfildun fakturazioa

Sarera sartzeko ordainsaria: 2.0A

Kontrataturako potentzia: 4,6 kW

Energiaren prezioa berdez markatuta dagoen ordu-tegian eta 2.0 DHA tarifarekin, 2.0 A tarifarekin baino %47 merkeago da batezbeste, gorri markatutako ordu-tegian berriz, %20 garestiago. Beraz, kontuak eginez, zure energiaren %30 baino gehiago berdez markatutako ordu-tegian kontsumitzen baduzu, ordu bereizketadun tarifa hartzea komeni zaizu.



Elektrizitate fakturan ordaintzen ditugun 5 kontzeptu:

DETALLE DE LA FACTURA

1	Facturación por potencia contratada: Comprende dos conceptos: la facturación por peaje de acceso (resultado de multiplicar los kW contratados por el precio del término de potencia del peaje de acceso y el número de días del periodo de facturación) y la facturación por margen de comercialización fijo. Peaje acceso potencia (01/08/2014-30/09/2014) 4,4 kW x 60 días x 0,104229 €/kW 27,52 € Comercialización (01/08/2014-30/09/2014) 4,4 kW x 60 días x 0,010959 €/kW 2,89 €
2	Facturación por energía consumida: Comprende dos conceptos: la facturación por peaje de acceso (resultado de multiplicar los kWh consumidos por el precio del término de energía del peaje de acceso) y la facturación por coste de la energía del PVPC. Peaje acceso energía (01/08/2014-30/09/2014) 435 kWh x 0,044027 €/kWh 19,15 € Coste energía (01/08/2014-30/09/2014) 435 kWh x 0,081734 €/kWh 35,55 €
3	Impuesto de electricidad: Impuesto especial al tipo del 4,864 % sobre el producto de la facturación multiplicada por el coeficiente 1,05113. Impuesto sobre electricidad 4,864% s/85,11 € x 1,05113 4,35 € Subtotal 89,46 €
4	Alquiler de equipos de medida y control. Precio establecido que se paga por el alquiler de equipos de medida y control. Alquiler equipos medida (01/08/2014-30/09/2014) 60 días x 0,01874 €/día 1,12 € Subtotal otros conceptos 1,12 € IMPORTE TOTAL 90,58 €
5	Impuesto de aplicación IVA 21% s/90,58 € 19,02 € TOTAL IMPORTE FACTURA 109,60 €

1 KONTRATATURIKO POTENTZIAREN FAKTURAZIOA:

Kontrataturiko potentzia uneoro eskuragarri izateagatik ordaintzen den **prezio finkoa**.

2 KONTSUMITURIKO ENERGIAREN FAKTURAZIOA: Kontsumitu duzun energiagatik ordaintzen duzuna.

⇒ **Sarbide bidesaria:** kontrataturiko tarifari finkaturiko prezioa.



Energia kostua: gure fakturan murrizketa eragin dezakegun puntu bakarra da.

3 ELEKTRIZITATEAREN GAINEKO ZERGA: Zerga berezia da. Hornitutako elektrizitatearen fakturazio produktuaren **%4,864, 1,05113** koefizienteagatik biderkatuz ematen duena.

4 NEURGAILUEN ALOKAIKURUA: neurgailuaren jabea ez bazara, **neurgailuaren hileroko alokairuagatik**, ordaintzen den prezioa da, **Industria, Energia eta Turismo Ministerioak** finkatzen du.

5 BEZ: Aurreko kontzeptu guztien batukariari aplikatzen zaio. (%21).